



Zumaia Udala

ZUMAIAKO UDALA

Iragarkia

Zumaiaiko alkateak, **397/2016 alkate dekretuaren bidez**, honako erabakia hartu du:

Ikerketa beka: Zumaian, zahartzaroaren zaintza lanak aztertzeko diagnostikoa

Zumaiaiko Udaleko Berdintasun Sailak ikerketa beka baten deialdia egin du. Ikerketa beka honen helburua da jakitea **nolakoak diren zahartzaroan eta menpekotasun egoeran daudenei eskaintzen zaizkien zaintza lanak, Zumaian.**

1. Ikerketa gaia

Ikerketa gaia honakoa da: Zumaian, alde batetik, zahartzaroaren, eta bestetik, menpekotasun egoeran daudenen zaintza lanak aztertzeko diagnostikoa.

Zaintza ezinbestekoa da bizitza iraunkor egiteko. Beka honetan, mugatu nahi izan dugu, nolabait, ikerketa, ikusteko ea nolakoa den, zahartzaroan, Zumaian eskaintzen ari den zaintza. Ikerketa honek abiapuntua izan nahi du, datozen urteetan, beste ikerketa batzuk bideratzeko eta zaintza lanei buruzko ezagutza integrala lortzeko.

Zainketei buruz hitz egiten dugunean, bizitza eta osasuna kudeatzeko eta egunero mantentzeko eginkizunei buruz ari gara, pertsonen gorputzen ongizate fisikoaren eta emozionalaren eguneroko berritzeaz alegia, bai norberaren gorputzarenaz, bai besteen gorputzarenaz. Horien barruan sartzen dira, halaber, afektuek eta afekturik ezek zeharkatuta dauden sexudun gorputzez arduratzeko hartzen ditugun zeregin askotarikoak. Zainketen ezaugarria da nola haragizko alderdi material bat (gorputzak zaintzea) hala afektuzko alderdi inmaterial bat (emozioak zaintzea) izatea. Jarduera bat eratzen dute, eta jarduera horren emaitza kontsumitu egiten da, egiten den aldi berean; horretan, garrantzitsuena prozesua da, berez, eta baita sortzen den pertsonen arteko harremana ere.

Zainketak ikuspegi zabal batetik ulertzen ditugu, eta ez ditugu mendekotasunera mugatzen. Zainketak **elkarren mendekotasunezko errealitate** direla uste dugu, eta ezin dira ulertu norabide bakarraz egiten den jarduera bezala, hau da: ustez autonomoak diren pertsonengandik ustez mendekotasuna duten pertsonengana. Pertsona guztiek bizitzaren momentu guztietan behar ditugu zainketak, hainbat motatakoak eta intentsitate desberdinetakoak. Autonomia eta mendekotasuneko egoeren artean continuum bat dago, eta horretan pertsonak beren burua zaintzeko eta elkar zaintzeko harremanak izateko gaitasun handiagoa edo txikiagoa dute.

Orduan, zainketak biziaren zaurgarritasuna eta zerizan komuna kontuan hartzen dituzten jardueren moduan pentsatu behar dira, eta hortik abiatuta, pertsonak autónomo izatea ahalbidetzen duten jardueren moduan.

Bekaren helburuak:

1. Zumaiaiko zahartzaroaren eta menpekotasun egoeran daudenen zaintza genero ikuspegitik aztertu (azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa)
2. Zainketak eskubide unibertsal gisa ulertu
3. Zumaiaiko egungo zainketen gizarte antolaketa ezagutu :
 - Nork zaintzen duen eta zergatik (zergatik zaintzen duen edo zergatik den zaintzailea)
 - Baliabideak: baliabide publikoak eta pribatuak (zaintza formala eta ez formala), zerbitzu publikoen eskaerak, kontziliazio neurriak, diru-laguntzak, laguntza taldeak, laguntza psikologikoa...
 - Familiaren baitako zaintzailearen ezaugarriak, zaintzaile nagusiaren lan karga eta zaintzaileek jasotzen duten familiaren babesa
 - Zerbitzu formalean lanean diharduten zaintzaileen egoera
 - Zaintzailearen formazioa
 - Lan baldintzak
 - Zainketen globalizazioa eta kate globalak (immigrazio eta zaintzaren arteko lotura: zerk ekarri duen hona, zer utzi duen jatorriko herrian, familia ekartzeko aukerarik izan duen, nola bizi duen dolua...)
-
4. Zaintzaileengan zaintza lanek duten eragina, arlo desberdinetan (osasunean, harremanetan, denbora librean eta aisialdian...)
5. Zaintzaren errekonozimendu soziala aztertu, Zumaian
6. Etorkizunerako erronkak hauteman eta proposamenak egin zaintza lanak hobetzeko

2. Ikerketa bekara aurkezteko bete beharreko baldintzak

lkerketarako beka-deialdi honetan, bete beharreko baldintzak betetzen dituen edonork har dezake parte. Pertsona fisikoak aurkeztu daitezke, bakarka nahiz taldeka egin daitezke proiektua eta ikerlana, baina taldea aurkeztuz gero, taldeko arduraduna izendatu behar da. Haren ezaugarriak baloratuko dira eta hark izango du lanarekin zerikusia duen guztirako ardura nagusia. Dena dela, taldean izanez gero, arduradunaz gainera, taldeko beste partaideek ere aipatutako gutxieneko baldintzak bete egin beharko dituzte.

Beka jaso ahal izateko, hautagaiek, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru Laguntzei buruzkoak (2003ko azaroaren 18ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*) 13.2 artikuluan xedaturiko baldintzetako batean dauden pertsonen ezingo dituzte jaso beka honen onurak. Taldeen kasuan, ez taldeak ez bertako kide bakoitzak, ezingo dira adierazitako debekuetan sartuta egon.
(http://noticias.juridicas.com/base_datos/Admin/l38-2003.tp.html)
- Ezingo dute beka jaso Zumaiako Udalarekin edo haren mendeko erakunde autonomoekin nahiz entitateekin dituzten zorreatatik behartze bidez ordainarazteko hasitako prozeduretan daudenek, ezta ere Udalarekin zerga obligazioak ordaintzeke izanez gero, harik eta zor horiek, benetan, ordaindu eta kitatzen dituzten arte; salbuespen bakarra izango da zorrak geroratuta edo epeka ordaintzeko izatea edo halakoan exekuzioan bertan behera utzita egotea.
- Unibertsitateko ikasketak: Erdi mailako edo goi mailako Unibertsitateko titulua izatea (betiere, gizarte arlokoa).
- EGA edo baliokidea izatea

3. Bekara aurkeztu beharreko dokumentuak

Bekara aurkeztu ahal izateko honako dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- Lan proiektua, bertan jasoko direlarik izenburua, ikergaia zehaztuta, ikergaiaren testuinguru teorikoa, helburuak, metodologia, kronograma, erabiliko diren baliabideak eta bibliografia. Lan proiektuak 15 orrialde izango ditu gehienez. Proiektuaren bi kopia aurkeztuko dira paperean, eta beste bat euskarri digitalean.
- Kartazal berean baina gutun azal itxi batean, lan proiektuaren izenburua, eskatzailearen edo eskatzaile guztien harremanetarako datuak, NAN dokumentuaren fotokopia, eskatzaileen curriculumak, bertan zehazten diren merituen zurrizko ziurtagiriak, tituluak eta eskatzaileak lanik argitaratu badu, argitaratutako lanaren lehen orrialdea.

- Azaroaren 17ko 38/2003 legearen 13.2 artikulua ezarritako debekuetan sartuta ez egotearen ardurazko adierazpena. Taldeen kasuan, taldeko kideetako bat ere debeku horietan sartuta ez egotearen adierazpena.
- Zerga bidezko betebeharrak (Foru Ogasuna eta Udalaren Zerga Biltegia) eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean egotearen eskatzailearen edo eskatzaile taldearen kideen adierazpenak.
- Helburu berdinerako Administrazio Publikoari edo erakunde publiko zein pribatuei bestelako diru laguntza, beka, baliabide edo laguntzarik jaso ez izanaren ardurazko adierazpena.
- Agiriak eta proiektuak helbide honetara bidali edota ekarri behar dira Udaletxeko sarrera-erregistroan sarrera emateko:

Zumaiako Udala

Foruen Enparantza, 1

20750 Zumaia

Ikerketa bekarako eskabideak behar bezala betetzen ez badira edo eskatutako agiriren bat falta badute, Zumaiako Udalak falta den agiria aurkezteko edo atzemandako hutsa zuzentzeko eskatuko dio eskatzaileari, eta hamar eguneko epea emango dio, jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera. Horrez gain, eskatutakoa egin ezean, eskaera atzera egindakotzat joko da, beti ere Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Arruntaren Erregimen Juridikoaren 30/1992 Legearen 42. Artikuluan izapidetutakoaren arabera diktatutako ebazpenaren ondoren.

4. Proposamenak aurkeztea

Eskaera **uztailaren 18ra arte (18a barne)** Zumaiako Udaleko Erregistro Orokorrean egin beharko da. Egun horretan, eguerdiko 14:00etan itxiko da hautagaitza eta proiektuak jasotzeko epea. **Zumaian, zahartzaroaren eta menpekotasun egoeran daudenen zaintza lanak aztertzeke diagnostikoa** jartzen duen gutun azal batean aurkeztu beharko da oinarri hauetan zehazten den dokumentazio guztia.

5. Hizkuntza

Zumaiako Udaleko Euskararen Erabilera Planak jasotzen duenari jarraituz, bekara aurkeztu beharreko dokumentuak euskaraz aurkeztuko dira. Ikerketa bekaren lan hizkuntza (idatzizkoa eta ahozkoa) euskara izango da, eta lanaren emaitza euskaraz aurkeztuko da, gaztelaniaz egindako ikerlanaren laburpenarekin batera (ondorio nagusiak jasota).

6. Epaimahaia

Zumaiako Udalak izendatuko du epaimahaia eta honela osatuko da:

- Udaleko Berdintasun Zinegotzia edo ordezko bat.
- Udaleko Berdintasun Teknikaria edo ordezko bat.
- Udaleko Gizarte Zerbitzuetako arduraduna edo ordezko bat.
- Ikerketa feministan aditu bat.
- Zumaiako Berdintasun Foroa.

7. Proiektuak baloratzeko irizpideak:

- Ikerlanaren proiektuaren kalitatea : **50 puntu.**
- Proiektua argia eta bideragarria izatea, egutegia eta metodologia barne: **20 puntu.**
- Azterketa honen antzeko ikerketa bereziak edota lanak egin izana: **10 puntu.**
- Hautagaiak, banakoek nahiz taldeetako kideek, emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuan eta/edo mugimendu feministaren alorrean duen ibilbidea, esperientzia eta prestakuntza: **20 puntu.**

Betiere, proposamenak ikuspegi feminista edo generokoa barneratua izan beharko du, irizpide baztertua izanik.

Hautagaiak taldean aurkezten badira, taldeak arduradun bat izendatu beharko du eta baloratzeko garaian, arduradunaren datuak baloratuko dira.

Bi hautagairen edo gehiagoren artean berdinketa emango balitz, epaimahaiak elkarizketa baten bidez hartuko luke erabakia. Puntuazioan berdinketa duten hautagaiak bere txostena defendatu beharko lukete elkarizketan: 0-10 puntu artean.

Epaimahaiaren iritziz gutxieneko interesik edo kalitatea duen lanik ez balego, beka eman gabe utzi ahal izango da.

Lehen hautaketan hartutako hautagaiei (edo hautagaiari) deia egingo zaie elkarizketa bat egiteko, euren proposamena azaldu eta defendatu ahal izateko.

Elkarizketan, pertsona eskatzaileak edo taldearen koordinazioa bere gain hartzen duenak, aurkeztutako memoria edo proposamena azaldu eta defendatuko du. Ikerlanaren emaitzen eta ikerlana egiteko bideragarritasunaren arabera baloratuko da memoria edo proposamenaren kalitatea. Epaimahaiak galderak egin ditzake azaldutakoari buruz, bekaren xedeari buruz eta bekan baloratutako alderdiei buruz.

8. Ebazpena

Epaimahaiak egindako balorazioaren arabera helaraziko duen esleipen proposamenean hautatutako pertsona edo taldea agerraraziko du, bai eta ordezeko eskaeren zerrenda bat ere, hartara jo ahal izateko pertsona edo talde onuradunak atzera egingo balu; halaber, baztertutako eskaeren zerrenda bat ere aurkeztuko du, baztertzeko arrazoiak argudiatuta, edo, hala balitz, zer dela-eta erabaki duen deialdia eman gabe uztea.

Epaimahaiaren proposamena Alkatetzari helaraziko zaio, zeinak beka-emakidaren berariazko ebazpena emango duen, edo, hala balegokio, eman gabe uzteko ebazpena. Ebazpena zuzenean jakinaraziko zaio pertsona edo talde onuradunari, bai eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ere.

Epaimahaiak **abuztuaren 4an** baino lehen egin beharko du hautaketa, eta egun horretan bertan, edo hurrengoan, erabakia jakinaraziko die interesatuei. Epe horretan pertsona edo taldeei ezein ebazpenik jakinarazi ez bazaie, bekaren eskaera atzera egindakotzat jo daiteke, betiere Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Arruntaren Erregimen Juridikoaren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. Artikuluan ezarritakoarekin bat eginda.

9. Ikerketaren iraupena

Deialdi honetan parte-hartzeko asmoa dutenek, **uztailaren 18a bitartean (18a barne)** proiektu-proposamena aurkeztu beharko dute, eta proiektu-proposamen horietatik egokiena aukeratuko da.

Aukeraketaren ondoren, hautatutako proiektua **2017ko otsailaren 4ra arte (6 hilabete)** bitartean gauzatu beharko du egileak edo egile-taldeak. Denbora-tarte horretan, egileak edo egileek jarraipen-bilerak egingo dituzte Udaleko Berdintasun Teknikariarekin, lanaren jarraipena egiteko.

10. Azterlanaren finantzaketa

Bekaren kopurua **6.700 eurokoa** izango da; betiere, aurrekontuaren erabilgarritasunari lotuta. Kopuru hau hiru zatitan ordainduko da; **%40a proiektua hautatutakoan, %30a hiru hilabete igaro ondoren, eta %30a ikerketa aurkeztu eta epaimahaiak bere oniritzia ematen duenean.**

11. Jarraipen bilerak

Zumaiako Udalak azterketaren jarraipena egin ahal izateko nahitaezko tutoretza ordu batzuk zehaztuko ditu, jarraipen bileraren bitartez.

12. Publikazioa

Lan originalak aurkeztuko dira, lanek argitaragabeak izan beharko dute. Ez da onartuko aurretik saritutako lanik, ez itzulpenik, ez moldaketarik. Berdintasun Sailak saritutako lana (osorik edo zati batean) argitaratzeko edo aurkeztutako proiektuak egoki baloratuak izango ez liratekeen kasuan, beka eman gabe uzteko eskubidea du.

13. Jabetza intelektual

Apirilaren 12ko 1/1996 Errege Dekretu Legegileak, Jabetza Intelektualaren Testu Bateginak ezarritakoa aplikatuko da. Zumaiako Udala izango da ikerlanaren jabe. Udalak beretzat gordetzen du ikerlan hau osorik edo zatika argitaratzeko eskubidea lana entregatzen denetik hasi eta 4 urteko epean. Argitalpen horregatik egileak/egileek ez du/dute aparte egile-eskubiderik kobratuko. Material guztia Zumaiako Udalaren esku geldituko da, eta lana behar bezala hedatuko da, Udalak egokitzat jotzen dituen bideetan, herritarrak sentsibilizatzen laguntzeko. Lanaren egilea edo egileak beti aipatu beharko dira, eta erabat bete beharko da jabetza intelektualerako eskubidea arautzen duen araudia.

Lau urte horiek igarota Zumaiako Udalak argitalpenik egingo ez balu, egileak/egileek bere/beren esku izango du/dute ikerlanarekin egokien deritzona/deritzotena egitea, baina beti ere Zumaiako Udalak emandako bekaren aipamena egin beharko du/dute.

14. Hautatuak izan ez diren proiektuak jasotzea

Beka jaso ez duten proiektuak, egileak berak edo baimendutako pertsonaren bidez, ebazpena argitaratzen den egunetik hasi eta 20 egunetara jaso ahal izango du Zumaiako Udaleko Berdintasun Sailean.

15. Oinarriak onartzea

Beka honetara aurkezteak oinarri hauek guztiak onartzen direla esan nahi du. Oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein egoeraren aurrean, epaimahaiaren eskuetan geratuko da erabakia.

16. Onuradunen betebeharrak

- Emandako beka onartu behar dute. Horrela, beka eman zaiela jakinarazteko idazkia jaso eta hamabost eguneko epean onuradunek –

pertsona nahiz talde- bekari beren-beregi eta idatziz uko egiten ez badiote, beka onartu egin dutela esan nahiko du.

- Beka zertarako eman den, helburu horretarako erabili behar dute, eta horretarako jarritako egutegiaren arabera, egindako lanaren eta lortutako emaitzen berri eman beharko diote Zumaiako Udalari, oniritzia eta onespena jasotzeko.
- Emandako beka-motarekin bat datorren ikerlana egin behar dute, euskaraz.
- 13. oinarrian jasotakoaren baitan, egindako lanaren argitalpen eta publizitate orotan, Zumaiako Udalaren laguntza jaso dutela azaldu behar da. Horretarako, erakundearen marka erreproduzitu beharko da publizitate-euskarrian. Marka Zumaiako Udalean eska daiteke.
- Lagundutako ikerlanaren kopia bat, euskarri informatikoan, Udaletxeari eman beharko zaio. Ikerlana euskaraz emango dio egileak Udalari, eta ikerlanaren aurkezpen bat egin beharko du herritar orori zuzenduta. Aurkezpen publikorako ele bietan sortu beharko du euskarri bat (power pointa...), non laburtu egingo dituen ikerlanaren lan ildo nagusiak.

Betebeharrak bete ezean, bekadunak itzuli egin beharko luke jasotako diru guztia.

17. Ez betetzea, itzultzeko prozedura eta zigortzeko prozedura

38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru Laguntzei buruzkoaren eta hura garatzeko Arautegiaren baitan aurreikusitako inguruabarrak gertatuz gero, jasotako kopuruak itzultzea eskatu ahal izango da, bai eta beka ordaindu zenetik itzultzeko data adostu arteko luzatzeagatiko interesak ere. Itzultzeko prozedura goian aipatutako Diru Laguntzen Legeak eta hura garatzeko Arautegiak ezarritakoaren arabera gauzatuko da.

Halaber, administrazioaren arau haustetzat hartzen dira 38/2003 Diru Laguntzen Legean diru-laguntzen gaietan sailkatutako egintzak zein ez-egintzak, eta aipatutako legean eta gura garatzeko arautegian araututako prozeduraren arabera zigortu ahal izango dira, baita laxokeria hustzat ere.

18. Helegiteak

Oinarrian aurka berraztertzeko helegitea egin ahal izango da deialdia onetsi duen organo gaitasundunaren aurrean, hilabeteko epean; edo, bi hilabeteko epean, zuzenean haien aurka egin ahal izango da Administrazioarekiko Auzitegiaren aurrean.

Kasu bietan, oinarriok argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatuko dira epeak.

Zumaian, 2016ko ekainaren 15ean

Oier Korta, Alkatea